



taxi kitto!



**Datorren
urtean
gehiago...**

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuarte.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Aldatze ikastetxea.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zer esaten dio semaforo batek beste bati?
- Ez begiratu, aldatzen nago eta!



- Zer esaten dio mahats berdeak moreari?
- Arnasa hartu, ito egingo zara eta...!



Bada neska txiki bat kalean topatzen duen mutil bati esaten diona:
- Aizu, esango zenidake zenbat falta zaidan metrora heltzeko?
- Ba, hamar zentimetro edo.



- Zergatik begirutzen dute fokek gorantz?
- Fokoak daudelako.

- Zergatik arrainek ez dute Facebook, Instagram ezta twiterrik?
- Ez zaizkielako sareak gustatzen.



- Zer esaten dio harri batek beste harri bati?
- Ze gogorra den bizitza!



Jaimito eta andereñoa:
- Jaimito, badakizu igeri egiten?
- Bai.
- Non ikasi duzu?
- Uretan



bitxikiakeriak



HAUR JAIOBERRIAK IGERI EGITEKO GAITASUNAREKIN JAIOTZEN DIRA.

HAURTXO BATEK EZ DU GATZAREN ZAPOREA BEREIZTEN 4 URTE IZAN ARTE.



HAURTXO BATEK LEHEN URTEKO ABIADURA BEREAN HAZTEN JARRAITUKO BALU, 20 URTEREKIN 9 METRO LUZE IZANGO LITZATEKE.

HAUR JAIOBERRIEK BATERA ARNASTU ETA IRENTSI DEZAKETE.

HAUR JAIOBERRI GEHIENEK AMAREN AHOTSA JAIIO ETA BEREHALA EZAGUTZEN DUTE, 9 HILABETEZ EGON BAITIRA HAREN SABELAN; AITARENA EZAGUTZEKO, BERRIZ, 14 BAT EGUN BEHAR IZATEN DITUZTE.



HAUR JAIOBERRIEK TXURI-BELTZEAN IKUSTEN DUTE.


Denborapasak




Hizki zopa



Labirintoa




Hieroglifkoa




Metal bat.



Nolakoa da ariketa?



Zer falta zaio oheari?



Lehiaketa

7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **martxoak 9** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak

Adina..... Tel.



Sani El Hait Touini sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, Sani El Hait

Zorionak Sani! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK txapeldun!



Iturburuko 6. mailakoak “Haurren eskubideak” gaia lantzen ibili dira azkeneko hilabeteetan. 1959ko azaroaren 20an onartu zuen Nazio Batuen erakundeak Haurren Eskubideen Aldarrikapena. Gaiak aztertzea zelako zorte ona duten konturatzeko balio izan diela esan digute Iturburuko ikasleek.



Zer ikasi duzu haurren eskubideen inguruan?



ENEKO URKOLA,
11 urte

Haurren eskubideen inguruko gaia landu dugu. Andereñok liburua utzi digu eta guk laburtu egin dugu. Gauza asko ikasi ditugu umeen eskubideei buruz. Munduko haur guztientzako dira liburuan agertzen diren eskubideak, baina leku askotan ez dira betetzen. Afrikako leku askotan, adibidez, pobrezia handia dago. Guk, zorionez, asebeteta ditugu eskubide guztiak.



ERITZ PEREZ,
11 urte

Osasunarekin lotutako eskubideen inguruan, adibidez, Afrikako herrialde askotan ez dute ez botikarik, ez txertorik. Asko hil egiten dira, eta horrek pena handia ematen dit. Orain konturatu naiz osasun-eskubidea beteta edukitzea zein garrantzitsua den. Horrez gain, berdintasun-eskubidea ere oso garrantzitsua da, eta neska eta mutilen arteko aldea desagertzea nahiko nuke.



JON ZABALA,
11 urte

Ume batzuk botikarik ez dutela jakiteak triste jarri nau. Mundua ez dago ondo antolatuta, gutxi batzuk oso aberatsak dira eta beste asko-asko oso pobreak. Guztion artean zeozer egin beharko genuke egoera hori aldatzeko. Baina hain urrutira joan gabe ere, hemen, Euskal Herrian, oinarritzko eskubide batzuk betetzen ez zaizkien ume asko dago. Batzuk gosalduta gabe joaten dira eskolara.



MAREN LARRAÑAGA,
11 urte

Asko gustatu zait umeen eskubideei buruzko liburua irakurtzea eta aztertzea. Asko ikasi dut. Banekien umeek eskubideak genituela baina ez nituen hainbeste espero, adibidez, familia, arropa, etxebizitza... baina kalitatezkoa. Asko txaboletan bizi dira eta hori ez da etxebizitza duina. Konturatu naiz guk zorte handia dugula, denetarik dugulako.



IZARO RIAL,
11 urte

Asko gustatu zait gai hau lantzea eta gauza asko ikasi ditut. Banekien umeek eskubide batzuk genituela baina ez horrenbeste! Gobernuetako arduradunek zerbait egin beharko lukete munduko ume guztien eskubideak errespetatzeko. Eta guk guztiok ere zerbait egin beharko genuke, aberatsen eta pobreen arteko tartea txikitzeko, adibidez, pobrenei diruz lagundu.




IZARO BASTIDA,
11 urte

Umeen eskubideei buruzko gaia lantzeak erakutsi dit zorte handia dugula guk, gure eskubide guztiak beteta ditugulako: txorrotak zabaldu eta ura, hozkailua zabaldu eta jatekoa nahi beste, neguan berogailua, udan oporrak... Liburua irakurri eta taldeka laburtu dugu. Asko ikasi dugu.

ALDATZE





SAN ANDRES



ARRATEKO ANDRA MARI



URKIZU



LA SALLE ISASI



J.A. MOGEL



Ana eta Julia: “Errekako ura hotza zegoen, baina, behintzat, garbi!”

Ana eta Julia. Bikote polita. Ana amama, Julia biloba. ... eta kitto!-n elkartu ditugu. Txintxo-txintxo etorri da Julia galdera guztiak prestatuta. Ana urduri dago, baina ilusioz beteta. Rosarito amatxo alboan, adi-adi elkarrizketa entzuten. Zenbat kontu kontatu dizkion amamak bilobari... Irakurri lasai elkarrizketa, gauza interesgarri eta harrigarri pila bat aurkituko dituzue-eta.



- Amama, zein ikasketa egin zenituen eta zertan egin duzu lan?

Klinika-laguntzaile ikasi nuen Donostian eta Eibarko Aspacen egin dut lan 35 urtetan.

- Eskolan ez zenuten ez ordenagailurik, ez Internetik. Nola konpontzen zineten?

Liburuak erabiltzen genituen, gogoan daukat “El Catón” liburua. Entziklopediak ere asko erabiltzen

genituen. Ondo konpontzen ginen, ez genuen besterik ezagutzen-eta!

- Zelan pasatzen zenuten denbora librean?

Kalean ibiltzen ginen. Lehen ez zegoen orain adina kotxerik eta lasai jolasten genuen kalean, tabekin, sokasaltoan, kromoekin... Etxean euria egiten zuenean bakarrik egoten ginen, bestela egun osoa kalean!

“Urkizuko parkean,
Pilarren kioskoan
Sancheski patinak
alkilatzen genituen”

- Eta Aratosteak? Zelan ospatzen zenituzten?

Sasoi batean debekatuta egon ziren. Aspacen lanean nengoela hasi nintzen koko janzen. On Kixote eta Santxo Panzaz mozarrotu ginen umeekin batera. Orain gutxiago ospatzen ditut aratosteak, giroa ere jaitsi egin da Eibarren.

- Eta oporretan nora joaten zineten (joaten bazineten)?

Debara joan izan gara beti. Gaur egun ere hara joaten gara.

- Kotxerik bazenuten?

Eeeeez, trenez mugitzen ginen. Autobusez gutxiago. Nik lehenengo kotxea heldua nintzela erosi nuen, 1975. urtean, R5 txuri bat zen.

- Noiz sartu zen telebista zuen etxean?

Nahiko berandu. Guk irratia entzuten genuen etxean, Arrate Irratia, Radio Eibar... Arraguetan lurrundegi bat zegoen eta telebista zuten. Inguruko ume denak joaten ginen domeketan hara telebista ikustera, guretzako zerbait berria zen!

- Eta ordenagailua?

Zure amatxo Bartzelonatik etorri zenean sartu zen lehenengo aldiz ordenagailu bat gure etxean; 20 bat urte izango zituen zure amak orduan. Ni heldua nintzen jada.

- Euskeraz egiten zenuten?

Etxean bakarrik, kalean ez, debekatuta zegoen eta. Eskolan ere ez genuen erabiltzen. Baina gaur egun etxeko danok dakigu eta erabiltzen dugu.



- Birziklatzen zenuten?

Guk asko erabiltzen genituen kristalezko botilak, ez zegoen gaur egun adina plastiko. Etxeko zabor dena botatzen genuen kubo batera. Kamioia pasatzen zenean sirena jotzen zuen eta norberak bere zabor-poltsa jaitsi behar izaten zuen.

- Ume zinenetik zer da Eibarren gehien aldatu dena?

Asko aldatu da. Lehen denak ezagutzen genuen elkar, lehenengo txikiteoa ere desberdina zen... Eta Eibar bera ere aldatu egin da. Urkizuko parkean Pilarren kioskoa zegoen, eta nobelak eta rebistak saldu eta patinak alkilatzen zituen, Sancheski markakoak (barreak).

- Erosketak egitera nora joaten zineten?

Auzoko denda txikietara. Guk Arraguetan Eulaliaren denda genuen eta denetarik erosten genuen han. Lehen ez zeuden gaur egungo denda eta kate handi horiek.

- Bainatu izan zara inoiz errekan?

Neu ez baina jende asko bainatzen zen Alfa lantegi inguruan. Ura hotza zegoela esaten zuten denek baina ur garbia zen!



LA SALLE

A ze ustekabea urtarrileko egun batean La Salle ikastetxean jaso genuena!!! Eskolara sartu eta... patio txikia zikinez beteta aurkitu genuen: jogurt-poteak, fruta-azalak, plastikozko poltsak, latak... zer gertatu ote zen? Patioa horrela ikustea ez zitzaigun gustatu eta guztien artean garbitzea erabaki genuen. Baina zer egin jasotako zabor guztiarekin? Denok dakigu hondakin mota bakoitzak bere ontzia duela jasotzeko, eta horrela egin genuen: paperak ontzi urdinean, plastikoak horian eta janari soberak marroian. Gelara bueltatu ginen eta gertatutakoaz hitz egin genuen, eta ondorio garrantzitsu bat atera dugu: ingurua garbi edukitzeko garbitzea ez dela nahikoa; egin behar duguna da zikindu ez eta sortzen ditugun hondakinak era egokian berrerabili eta birziklatu.



SAN ANDRES

Urte pila bat dira, hain zuzen, 33, San Andres eskolan ATE IREKIEN eguna ospatzen dugula. Aurten ere, urtarrilean, eskolako ateak zabaldu genituen, eta bertara hurbildu ziren ikasle, gaztetxo, familia eta herritarrek aukera paregabea izan zuten larunbata arratsaldea primeran pasatzeko. Egun hau, eskola ezgutzeaz gain, ikasleen lanak, lan-metodologia, eskaintzen ditugun zerbitzuak, eta zalantzak argitzeko momentu aproposa izaten da. Baina ez hori bakarrik, gure gaztetxoen arratsalde alai eta dibertigarria pasatzeko eguna ere bada.



ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunok! Arrateko Andra Mariako otsailaren 4an makilak hartu eta Santa Ageda abesten ibili ginen auzoan zehar. Bestalde, 4. mailako ikasleak "Hazteko energia" izeneko tailerra izan zuten. 5. mailakoak, berriz, "Tramankuluak eskolan" antzezlanak ikustera joan ziren Portalera. 5. eta 6. mailakoak Madariaga Dorretxera eta Portaleko Armagintza museora joan ziren. Horrez gain, irrati-saioekin hasita gaude. Hor ari dira ikasle eta irakasle guztiak lan eta lan, saio ezin politagoak egiten!



ITURBURU

Iturburuk lotura estua dauka mendiarekin, naturarekin. Mendien gaude eta hein handi batean mendia da gure etxea. Horregatik, 4. mailakoek otsail tropikal hau aprobetxatu dute mendian gehiago murgiltzeko. Zapaburuak hartzera joan ziren "Amazabalegi-bekua" baserriko askara. Zapaburuak ontzietan gorde zituzten, horrela euren garapena bertatik bertara ikusi ahal izango dute zapo edo igel bihurtu arte. Igel bihurtzen direnean ontzitik atera eta askara bueltatzea da euren asmoa. Bitartean behar dituzten zaintza guztiak emango dizkiete: ura sarri-sarri aldatu, toki argitsu batean eduki eta noizean behin elkarrizketalditxoak ere izaten dituzte zapaburuarekin, asper ez daitezen. Pentsa, jada izenak ere jarri dizkiete! Ikasle berriak izango ote ditugu Iturburun?



AMAÑA

Alex Txikonen abentura! Amaña ikastetxeko 4. mailako ikasleak mendiei buruzko proiektua lantzen ari gara. Besteak beste, Ama Dablam mendiaren murala egin dugu, mendiek dituzten altuera edo metroak landu ditugu eta Alex Txikonen espedizioa zuzenean jarraitzen ari gara, datozen asteetan Everest mendia igotzen saiatuko da-eta.



ALDATZE

Otsaila hasieran, larunbat goizean, Aldatze ikastetxean Aldatze Denok Gara ate irekien IX. Jardunaldia izan genuen. Haur txikiek, nerabeek eta euren gurasoek ikastetxea barrutik ezagutzeko aukera paregabea izan zuten. Goizean zehar zenbait tailer antolatu ziren eta bisita gidatuak ere bai. Eguerdian guztiok elkartu eta luntx eder batekin amaitu genuen saioa.



URKIZU

Gabonetatik bueltan, Urkizu ikastetxeko 3. mailako ikasleek igeriketan trebatzen jardun dute Orbeako kiroldegian. Horretaz gain, 1., 2. eta 3. mailakoak zinera joan ziren Coliseoan: Alfonbra magikoa pelikula ikusteko aukera izan zuten eta primeran pasa zuten. Eskolako nagusienek, aldiz, sexualitatearen inguruko jardunaldiak izan zituzten: interesgarria benetan!





zer irakurri

Juan San Martin Liiburutegia



Gabi eta Bernardaren komerkiak 6 urtetik aurrera

Gabik eta Bernardak badute komeria franko azkenaldian. Idi parakaidista beti dago prest bi txerriei laguntzeko, baina honek ere ezin ditu konpondu, ordea, arazo guztiak. Nork lagunduko ote die azkenean?



Lurpeko bizilagunak 8 urtetik aurrera

Oroitzen zara gure lehenengo abenturako meteoritoaz? Bada, Antonov irakasleak laborategi bat muntatu zuen meteoritoa aurkitu genuen kraterraren ondoan, eta inguru hartan oso gauza bitxiak gertatzen hasi zirela konturatu zen. Baina onena da irakasleak egun batzuk pasatzera gonbidatu gintuela hara, eta, azkenean, harri berdeak ezkutatzen zuen misterioaren benetako izaera aurkitu genuela. Jakin nahi duzu zein den?



Iluneko Argi 10 urtetik aurrera

Hermenegildo beti izan da pixka bat erretxina, baina zerbait aldatu da, bihotzekoak eman ondoren. Goizeko pasealdian, neskato bat ezagutu du; Iluneko Argi deitzen dio berak. Neskatoa egunero doa oinez ikastetxera, bederatziko taula xuxurlatzen. Hermenegildok babestu egiten du eta, egun batean, partekatu du bere sekretua: zuhaitzek hitz egin eta ipuinak kontatzen dituzte, eta beraiek entzun ditzakete.

'Zubi zubi' (Arrako Andra Mari ikastetxea)

Nola jolasten da?

Parte-hartzaileak borobilean jarriko dira zutik, hankak zabaldua eta albokoaren oinak ukituz. Besteen hanka tartetik baloia pasatzea da helburua.

Arauk:

- ✓ Ezin da baloia eskuetan hartu.
- ✓ Ezin dira oinak lurretik mugitu.
- ✓ Ezin dira eskuak lurrean jarri.
- ✓ Norbaiti baloia hanken artetik pasatzen bazaio, esku bat atzera eramango du eta esku batekin jarraitu beharko du jolasean.
- ✓ Bigarren aldir pasatzen bazaio, bira erdia emango du eta bi eskuekin jarraitu beharko du jolasean.
- ✓ Hirugarren aldir, esku bat atzera eraman beharko du eta esku batekin jarraitu beharko du jolasean.
- ✓ Laugarren aldir, kaleratua izango da.

jolastokixan jolasian



BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/arrateko-andra-mari-jolasa-2.html>



ipuinak



jolasak irentsi gaitu

Behin batean bi lagun Egiptori buruzko jolas batekin zebiltzan, Asier eta Maddi ziren. Beren alboan Lur txakurra zegoen siesta egiten. Asierri tokatzen zitzaion galderari erantzutea, baina ez zehienez, leloheria bat asmatu zuen.

Bat-batean, Maddiren begiak handitu ziren, ezin zuen sinestu! Asier txikitzen hasi zen! Gero eta txikiago, eta txikiago... eta azkenean desagertu egin zen! Maddik bere lagunari deituko ahoa zabaldu zuenean, bera ere, txikitzen hasi zen...

Begiak zabaldu zituztenean jokoaren barruan zeuden. Handik irteteko mailak gainditu behar zituzten.

Lehenengo basamortuko labirinto batean gertatzen zen. Irten ezinik zebiltzala jakintsu batekin egin zuten topo. Jakintsuak bidean aurrera lagundu zien. Aurrera egin ezin zutenean asmakizumen bat botatzen zien. Asmatzen bazuten bidea zabalitzen zen eta bestela, atzera egiten zuten.

Oso neketsua zen maila hori gainditzea eta denboratxo bat jakintsuaren etxean pasatu behar izan zuten.

Buelta aho eman ondoren lortu zuten maila pasatzea eta basamortutik irtetea.



Hurrengo maila ozeano zabalean zen. Han olagarro erraldoi batekin egin behar zuten borroka eta irabaziz gero izar bat lortzen zuten. Lortzeko tresnak hartu ahal zituzten: sardexka, labana, ezpata, sarea... Azkenean trikimailu batekin lortu zuten olagarroa sarearen barruan harrapatuta gelditzea. Izarra irabazi eta hurrengo mailara igaro ziren.

Oraingoan area mugikorretan zeuden! Han altxor kuxka baten inguruan zeuden txanponak hartu behar zituzten. Txanpon guztiak hartutakoan giltza agertzen zen eta altxor kuxka zabalitzen zen. Horrela lortu zuten hurrengo izarra!

Eta hura lortzean... zurrumbilo erraldoi bat sortu zen eta bueltak eta bueltak ematen hasi ziren, zurrumbilo handi horretan galdurik egon ziren ordu batzuk, edo hori pentsatu zuten Maddik eta Asierrek. Tupustean, dena amaitu zen, sinetsi barik oraindik, hasi ziren begiak zabalitzen, lehenengo bat, gero beste bat, ZORAGARRIA! Berrero beren etxe barruan zeuden jolas aurrean, BAI POZA!!! Zalaparta horretan zeuden bitartean, ahots bat entzun zuten: Egiptoko altxorra irabazi duzue...

Ipuin kooperatiboa

4. maila



zu margolari